

# **UDALAREN OSOKO BILKURA**

## **2009ko azaroaren 2ko ohiko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO JN.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL JN.

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA AND.

EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI AND.

EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO JN.

EAJ-PNV.- M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ AND.

EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO JN.

EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA JN.

EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA JN.

EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA AND.

PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.

PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ JN.

PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA AND.

PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO JN.

PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.

PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.

PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.

PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ JN.

PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS JN.

Leioako udaletxean, bi mila eta bederatziko azaroaren biko arratsaldeko zazpiak eta hamar minutu direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna**, izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketa-aren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## **I.- ERABAKITZEKOAK**

**1.- 2009ko IRAILAREN 24an EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA ONESTEA:**  
Izenburuan aipatutako bilerako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren Osoko Bilkurak onesteko jarri da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez onetsi du** 2009ko irailaren 24an egindako ohiko bileraren akta.

**2.- SALEROSKETA-ESKRITURAK SINATZEKO ESKUMENA IÑAKI GOIKOETXEA GORDO JAUNARI, ZINEGOTZIA ETA OGASUN, ONDARE ETA KONTUEN INFORMAZIO BATZORDE BEREZIKO BURUA DENARI, EMATEKO DEKRETUA:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko urriaren 13ko 383. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2009ko urriaren 6an hartu zuen 130. zenbakidun irizpenak honakoa dio:

Aztertu da Alkatetzaren 2009ko irailaren 23ko 973. zenbakidun Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

#### **973. zenbakidun DEKRETUA:**

Tokiko Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren 43, 44 eta 45. artikuluetan xedatutakoaren arabera, alkateak bere eskumenak eskuorde ditzake, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 eta 71. artikuluetan adierazitakoak izan ezik, aipatutako erregelamenduan adierazitako terminoei jarraituz.

Beharrezkoa dirudi eskuordetze berezia egitea, **IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jauna, zinegotzia eta Ondasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziako burua**, honako eskriturak sinatzeko baimendu ahal izateko: Iparragirre etorbideko 80-82 zenbakietan dagoen nabea erregularizatu eta saltzeko eskritura publikoak eta Santa Ana etorbideko 7. zenbakian dagoen industria-pabilioia saltzeko, Mendibilbarri kaleko 2-4-6-8 eta 10 zenbakietan dauden merkataritza-lokalak saltzeko eta Amaia etorbideko 2. zenbakian dagoen INBISA enpresa-guneko 9. zenbakidun lokala saltzeko eskritura publikoak.

Tokiko Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 43. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera,

#### **HONEN BITARTEZ**, honakoa erabaki dut:

1. Behin betiko adjudikaziodun izango diren lizitatzaillei eskuordetuko zaie honako eskriturak sinatzeko zeregina: Iparragirre etorbideko 80-82 zenbakietan dagoen nabea erregularizatzeko eta saltzeko eskriturak eta Santa Ana etorbideko 7. zenbakian dagoen industria-pabilioia saltzeko, Mendibilbarri kaleko 2-4-6-8 zenbakietan dauden merkataritza-lokalak saltzeko eta Amaia etorbideko 2. zenbakian dagoen INBISA enpresari-guneko 9. zenbakidun lokala saltzeko eskritura publikoak.
2. Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 44.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Bizkaiko

Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eskriturak sinatzeko eskumenaren eskuordetzea.

3. Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 44.4 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eskuordetze hau udalaren osoko bilkurari jakinaraziko zaio, egingo duen hurrengo batzarrean.

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezia** jakinaren gainean eta ados dago eta egokia deritzo eskuordetze hau udalaren osoko bilkurari jakinaraztea, egingo duen hurrengo batzarrean.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Osoko Bilkura **jakitun geratu** da **IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jaunaren** sinadura ordezkaritza onartzen duen Alkatetza dekretuaz. Ordezkaritza horren bidez, Goikoetxea jaunak bere gain hartzen du eskritura publiko hauen sinadura: Iparragirre Etorbidea 80-82 zkan dagoen nabea erregularizatu eta saltzekoak; Santa Ana Etorbidea 7. zkan dagoen industria pabilioia saltzekoak; Mendibilbarri kaleko 2-4-6-8 eta 10. zkan etan dauden merkataritza lokalak saltzekoak; eta Amaia Etorbidea 2. A-n dagoen INBISA Enpresa Multzoaren 9. lokala saltzekoa.

**3.- KREDITUAK ERRESERBATZEA, 2009ko IRAILETIK ABENDURA BITARTEAN ESKOLAZ KANPOKO TAILERRAK ETA HEZKUNTZA-ZERBITZUAK EMATEKO:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko urriaren 13ko 396. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako Informazio Batzordeak 2009ko urriaren 7an hartu zuen 83. zenbakidun irizpenak honakoa dio:

Batzordeburuak adierazi du, SOLASGUNEri adjudikatutako jardueren ordainketak egite aldera, dagozkion kredituak erreserbatu behar direla.

Horren harira, eskolaz kanpoko tailerrei dagokienez, honakoa adierazi du: erreserba 25.000 €-koa izan beharko litzateke, 09/10 ikasturte osoko ordainketak egiteko, eta, egungo aurrekontuan, Hezkuntzara bideratutako partidetan, nahikoa kreditu zegoela esan du. Hezkuntza-zerbitzuei dagokienez, erreserba 48.520 €-koa izan beharko litzateke, zerbitzu-sariak ordaintzeari aurre egiteko, eta 10.000 €-koa, materialen gastuak ordaintzeko.

**Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako Informazio Batzordeak** egin beharreko kreditu-erreserben aldeko irizpena eman du. Hala ere, horietako bigarrena aplikatzeko, Osoko Bilkurak onetsi beharko du, hala badagokio, kredituak aldarazteko espedientea, baldin eta indarreko aurrekontuko Hezkuntzako partidetan kopuru nahikoa ez badago.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Osoko Bilkurak **aho batez adostu ditu** kreditu erreserbak 2009ko irailetik abendura arteko eskolaz kanpoko tailerretarako eta hezkuntza zerbitzuetarako, Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako Informazio Batzordean proposatutako baldintza berdinetan.

**4.- TOKIKO AGENDA 21EN EKINTZA-PLANEAN ZENBAIT JARDUERA SARTZEKO BEHARRA, DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO.** Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko urriaren 27ko 403. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2009ko urriaren 20an eman zuen 101. zenbakidun irizpenak hauxe dio:

Alkate-Udalburutzaren bitartez, Batzordeko kideei jakinarazi zaie behin eta berriz egiten direla diru-laguntzak emateko deialdiak, Tokiko Agenda 21 ezartzeko ekintza-planetako jarduerak finantzatze aldera. Hori horrela, premia handia du honako jarduera hauek aipatutako dokumentuan sartzeak, diru-laguntzak jaso ahal izateko:

- Sarbide mekanikoko sistema Ikeako eremuan.
- Pikueta eta Txorierrri eremuak lotzen dituen sarbide mekanikoa.
- Pasabidea Abanzadaren gainean, su-hiltzaileen eraikinaren parean.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Tokiko Agenda 21eko (IMSA Gestores Europeos, S.L.) jarduerak idazteko eta koordinatzeko ardura duen enpresak aurretik aipatutako jarduerak sartzeari Agendan bertan.
- Jardueren inbentario berria onestea, azaroaren hasieran egingo den osoko bilkuran.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du.**

#### **EZTABAIDA:**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Puntu honetan eta hurrengoan antzeko gaiak lantzen dira eta hiru jardura aipatzen dira: sistema mekaniko bat jartzea Ikeako Auzora sartzeko, bigarren bat Pikuetarako eta beste bat Txorierrirako.

Gu ados gaude Pikueta eta Txorierrira sartzeko sistema mekanikoak jartzearekin, baina ez hala Abanzadari eragiten dionarekin. Gai horren gainean dugun iritzia ezaguna da eta planteatutako konponbidea ez zaigu egokia iruditzen. Horregatik, bozketa banandua egitea eskatzen dut.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Horrela eginda, bakoitzak hobeto ulertu eta argiago uzten badu bere jarrera zein den, nire aldetik ez dago inongo arazorik. Orduan, honako hau egingo dugu: azalpen bakarra emango denez, lehen bi puntuak baliozkotzat jo ditzakegu onartuak izan bailitzan, aho batez onartuko litzateke, eta, Abanzadako puntua, aldiz, bozkatu egin behar da.

Eztabaidatu ondoren, eta PPko udal taldearen bozeramaileak bi erabaki egin daitezzen eskatu ostean, alkate jaunak bi bozketa egitea proposatu du, ondoren jasota dagoen bezala:

**LEHEN BOZKETA** Ikeako eremura sartzeko sistema mekanikoari eta Pikueta eta Txorierri lotzen dituen sarbide mekanikoari buruz.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Osoko Bilkurak **aho batez adostu du** Tokiko 21 Agendaren idazketa eta koordinazioa burutuko duen enpresak (IMSA Gestores Europeos SL) bertan aurretiaz aipatutako jarduerak sartzea, eta, horrela, jarduera egitarau berria onartu da.

**BIGARREN BOZKETA** Abanzadaren gaineko pasabiderako, suhiltzaileen eraikinaren parean.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Osoko Bilkuraren **gehiengoak**, aldeko hamazortzi botorekin, **adostu du** onartzea Tokiko 21 Agendaren idazketa eta koordinazioa burutuko duen enpresak (IMSA Gestores Europeos SL) bertan aurretiaz aipatutako jarduerak sartzea, eta, horrela, jarduera egitarau berria onartu da. Bozketan, aldeko botoa eman dute EAJ-PNVk (hamar zinegotzi), PSE-EEK (sei zinegotzi) eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziek, eta PPko hiru zinegotziek kontrako botoa igorri dute.

EB-Berdeak taldeko **Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunak** esandakoaren laburpena:

Abanzadak sortzen duen arazoaz dugun iritzia ezaguna da, baina azpiegitura hortxe dagoenez eta ezin izan dugunez ekidin kotxeek herri erdia zeharkatzea eta metroak inguratzea, egokia dirudi pasabide bat egitea pertsonak errazago igaro daitezzen, eta ondo deritzot hori instalatzeko diru-laguntza lortzen saiatzea. Hala ere, oraindik ere pentsatzen dut Abanzada lehenbailehen lurperatu behar dela.

**5.- IRISGARRITASUN-PLANEAN ZENBAIT JARDUERA SARTZEKO BEHARRA, DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO.** Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko urriaren 27ko 404. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2009ko urriaren 20an eman zuen 102. zenbakidun irizpenak hauxe dio:

Alkate-Udalburutzaren bitartez, Batzordeko kideei jakinarazi zaie behin eta berriz egiten direla diru-laguntzak emateko deialdiak, irisgarritasun-planetako jarduerak finantzatze aldera. Zehazki, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2009ko urriaren 7ko agindua, 2009ko urriaren 16an EHAA-n argitaratutakoa. Hori horrela, premia handia du honako jarduera hauek aipatutako dokumentuan sartzeak, diru-laguntzak jaso ahal izateko:

- Sarbide mekanikoko sistema Ikeako eremuan.
- Pikueta eta Txorierri eremuak lotzen dituen sarbide mekanikoa.
- Pasabidea Abanzadaren gainean, su-hiltzaileen eraikinaren parean.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Irisgarritasun-planeko (ADIR) jarduerak idazteko eta koordinatzeko ardura duen enpresak aurretik aipatutako jarduerak sartzeari buruzko planeari bertan.
- Jardueren inbentario berria onestea, azaroaren hasieran egingo den osoko bilkuran.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** bere onesteko **dekretua eman du**.

#### **EZTABAIDA:**

Aurreko puntuari buruzko eztabaida egon da.

Eztabaidatu ondoren, eta PPko udal taldearen bozeramaileak bi erabaki egin daitezkeen eskatu ostean, alkate jaunak bi bozketa egitea proposatu du, ondoren jasota dagoen bezala:

**LEHEN BOZKETA** Ikeako eremura sartzeko sistema mekanikoari eta Pikuetan eta Txorierri lotzen dituen sarbide mekanikoari buruz.

#### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Osoko Bilkurak aho batez adostu du irisgarritasunaren planaren idazketa eta koordinazioa burutuko duen enpresak (ADIR) bertan sartzeari aurretiaz aipatutako jarduerak, eta, horrela, jardueraren egitarau berria onartu da.

**BIGARREN BOZKETA** Abanzadaren gaineko pasabiderako, suhiltzaileen eraikinaren parean.

#### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Osoko Bilkuraren **gehiengoak**, aldeko hamazortzi botoekin, **adostu du** onartzea irisgarritasun planaren idazketa eta koordinazioa burutuko duen enpresak (ADIR) bertan aurretiaz aipatutako jarduerak sartzeari, eta, horrela, jardueraren egitarau berria onartu da. Bozketan, aldeko botoa eman dute EAJ-PNVk (hamar zinegotzi), PSE-EEk (sei zinegotzi) eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziek, eta PPko hiru zinegotziek kontrako botoa igorri dute.

**6.- 2010EKO URTARRILAREN 1EAN INDARREAN SARTUKO DIREN ZERGA ORDENANTZAK ALDATZEA:** Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezien 2009ko urriaren 27ko 140. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Egungo egoera ekonomikoa eta azken urtean KPI izandako garapena kontuan hartuta, Gobernu Taldeak honakoa proposatu du: Zerga Ordenantzak 2010ean ezarriko diren zerbitzu berrietan soilik aldatzea. Era berean, familia ugaria izateagatik Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren hobaria emateko katastro-balioaren beharrezko zenbatekoa erregulartzeko proposatu da.

**Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Zerga Ordenantza aldatzeko proposamena:**

19.4.3 artikulua aldatzea proposatu da; honakoa dio hitzez hitz:

**3. Higiezinaren katastro-balioa ..... 13.122 eurotik beherakoa izatea.**

Egun, katastro-balioa 11.000 € edo gutxiagokoa izan behar da. Kopuru hori zaharkituta geratu da; izan ere, katastro-balioaren batz besteko kopuruarekin, balioa 13.122 €-ra igo dela kalkulatu zen.

**2010erako KULTURA-TARIFEN PROPOSAMENA**

Kultura Arloko zuzendariak 2010ean sortuko diren kultura-zerbitzu berrien tarifak proposatu ditu; honakoak dira:

**ERANSKINA**

**ANEXO**

**TARIFAK. 2010**

**TARIFAS. 2010**

**Herriko jaien atala honela idatzita geratuko litzateke: / El apartado de fiestas populares quedaría así redactado:**

**HERRIKO JAIK:**

San Juan jaietan **kanpoko barra** instalatu duten establezimenduetako titularrek 60 € ordaindu beharko dute barrako metro lineal edo 50 cm baino gehiagoko zatiki bakoitzeko. Jaiak hasi aurretik ordaindu beharko da zenbateko hori.

Leioako Udalak tasa txikiago bat ezar dezake kanpoko barra jartzeagatik udaleko auzoetako jaietan.

Beste alde batetik, San Juan jaietan **kanpoko bozgorailuak** instalatzeko eskatzen duten establezimenduak 1.800 € gordailatu beharko dute udalean, fidantza gisa, musika hedatzeari, ixteko ordutegiari eta antzekoei buruz ezarritako baldintzak behar bezala beteko direla bermatzeko.

Leioako Udalak fidantza txikiago bat ezar dezake kanpoko bozgorailuak jartzeagatik udaleko auzoetako jaietan.

**FIESTAS POPULARES:**

Los titulares de establecimientos que instalen **barra exterior** en las fiestas de San Juan, deberán abonar una cantidad de 60 € por metro lineal de barra o fracción superior a 50 cm., efectuando el pago con anterioridad al inicio de las fiestas.

El Ayuntamiento de Leioa podrá establecer una tasa inferior por instalación de barra exterior en las fiestas de los diferentes barrios del municipio.

Por otro lado, aquellos establecimientos que soliciten la instalación de **altavoces exteriores**, en fiestas de San Juan deberán depositar en el Ayuntamiento una cantidad de 1.800 €, que tendrá carácter de fianza, a fin de responder del exacto cumplimiento de las condiciones establecidas en cuanto a difusión de la música, horario de cierre, etc..

El Ayuntamiento de Leioa podrá establecer una fianza inferior por instalación de altavoces exteriores en las fiestas de los diferentes barrios del municipio.

San Juan jaietako **txosnen** koordinatzaileak 3.000 € gordailatu beharko ditu udalean, aurreko paragrafoan ezarritako epean, txosna guztietarako. Fidantza gisa gordailatuko da zenbateko hori, musika hedatzeari buruz ezarritako baldintza guztiak behar bezala beteko direla eta jaiak amaitutakoan erabili duten gunea garbitasun baldintza egokietan utziko dutela bermatzeko.

La Coordinadora de **Txosnas** de fiestas de San Juan deberá depositar en el Ayuntamiento, en el plazo establecido en el párrafo anterior, una cantidad de 3.000 € por la totalidad de las txosnas, que tendrá carácter de fianza, a fin de responder del exacto cumplimiento de las condiciones establecidas en cuanto a difusión de la música y para garantizar que, finalizadas las fiestas, dejarán el espacio utilizado en las debidas condiciones de limpieza.

### Tailerretan 2010ean aplikatu beharreko tarifak / Tarifas a aplicar en 2010 de talleres

#### ARTE ETA ESKULAGINTZA TAILERRAK

#### TALLERES DE ARTE Y ARTESANÍA

Arte aplikatuen tailerra, urtean .....	<b>147,00</b>	Taller de Artes aplicadas, anual .....	<b>147,00</b>
Zura tailatzeko tailerra, urtean .....	<b>147,00</b>	Taller de Talla de Madera, anual .....	<b>147,00</b>
Zaharberritze tailerra, urtean .....	<b>147,00</b>	Taller de Restauración, anual .....	<b>147,00</b>
Literatur tailerra, urtean .....	<b>147,00</b>	Taller literario, anual .....	<b>147,00</b>
Ehungintza tailerra, urtean .....	<b>147,00</b>	Taller Textil, anual .....	<b>147,00</b>
Ebaketa eta jantzigintza tailerra, urtean .....	<b>147,00</b>	Taller de corte y confección, anual .....	<b>147,00</b>
Zeramika eta eskultura-tekniken hastapen tailerra, urtean .....	<b>147,00</b>	Taller de Cerámica e iniciación a las técnicas escultóricas, anual .....	<b>147,00</b>
Helduentzako marrazketa eta pintura tailerrak, urtean .....	<b>110-147,00</b>	Talleres de Dibujo y Pintura adultos, anual ....	<b>110-147,00</b>
Umeentzako marrazketa eta pintura tailerrak, urtean .....	<b>110-147,00</b>	Talleres de Dibujo y Pintura infantil, anual.....	<b>110-147,00</b>
Hiruhilekoko tailerrak .....	<b>50,00</b>	Talleres trimestrales .....	<b>50,00</b>

#### ATERPE LEIOA GAZTE BULEGOKO TAILERRAK:

**10-30,00**

#### TALLERES ATERPE - OFICINA DE INFORMACIÓN JUVENIL DE LEIOA:

**10-30,00**

Beste tailerren tasa Leioako Udalak erabakiko du.

La Tasa de otros talleres, lo determinará el Ayuntamiento de Leioa.

## **SAN BARTOLOME KULTURGUNEKO TXOKOA**

**Tasa** erreserbatzeagatik, erabiltzeagatik eta mantentze lanengatik (argia, ura, garbiketa...)

Tasa horri 2 € erantsiko zaizkio mahaikide bakoitzeko.

**Fidantza** (bere gain hartzen ditu txokoaren erabilera egokia eta instalazioei gertatutako edozein kalte edo eskatzaileari ezar dakioken edozein isun, eta baita ere Leioako Udalari txokora sartzeko giltzak ez itzultzea).

### **Ordainketa:**

Tasak eta dagokion fidantza arau hauen arabera ordainduko dira:

a) Instalazioak eskatzen dituenak ordaindu beharko ditu.

b) Ordainketa erreserba egiaztatu eta baimena eman ondoren egin beharko da. Horretarako, Udalak Alkatetza Dekretu bidez erabakiko du txokoa erabili baino 48 ordu lehenago gutxienez.

Bi zenbatekoak (tasak eta fidantza) batera honako BBK kontu zenbaki honetan sartu behar dira: 2095 0048 24 32 3901 3049, eta honako hau adierazi beharko da : "Txoko San Bartolomé" eta ondoren, eskatzailearen izena.

Amaierako erabiltzaile kopurua erreserbakoa baino handiagoa bada, aldea kontu horretan bertan sartu beharko da.

Ez da inolaz ere txokoa esku-dirurik utziko.

Erreserba bertan behera uztea ordaindutako tasak berreskuratzeko eskubidearekin, onartuko da soilik behar bezala justifikatutako eta Kultura Zuzendaritzak askatasunez balioetsitako arrazoiengatik, txokoa erreserbatu deneko ekitaldiaren hasiera baino 8 egun lehenago gutxienez.

## **TXOKO SAN BARTOLOME KULTURGUNEA**

**Tasa** por reserva, uso y mantenimiento (luz, agua, limpieza,...).

**60,00**

A esta tasa se añadirá 2 € por comensal.

**2,00**

**Fianza** (responde de la correcta utilización del txoko y de cualquier deterioro en las instalaciones o sanción que se pudiera imponer al solicitante, así como de la no devolución al Ayuntamiento de Leioa, en su caso, de las llaves que se hubieren cedido para acceder al txoko).

**60,00**

### **Abono:**

El abono de las tasas y fianza correspondiente se realizará conforme a las siguientes normas:

a) La obligación del pago recaerá en el/la solicitante de las instalaciones.

b) El abono deberá realizarse una vez confirmada la reserva y concedida la autorización, que se resolverá mediante Decreto de Alcaldía, y al menos 48 horas antes del uso efectivo del txoko.

Deberá ingresarse la cantidad total resultante de la suma de ambas cifras (tasas y fianza) en la cuenta de la BBK nº: 2095 0048 24 32 3901 3049, indicándose lo siguiente: "Txoko San Bartolomé" y a continuación el nombre del/de la solicitante.

En caso de que la cifra de usuarios/as finales superase la de la reserva, se abonará la diferencia en la misma cuenta.

Bajo ningún concepto se dejará dinero en metálico en el txoko.

Las anulaciones de reservas con derecho a devolución de las tasas satisfechas, únicamente serán admitidas por causas debidamente justificadas y libremente apreciadas por la Dirección de Cultura y siempre que se efectúen con una antelación mínima de 8 días a la fecha de inicio del acto para el que se reserva el txoko.

Erabiltzeko eskubidea baimendu eta txokoa erabiltzen ez bada, fidantza bakarrik itzuliko da eta inolaz ere ez ordaindutako tasak, egoera hori egiaztatu ostean.

Erabilera eskubidea gozatu eta ordenantza hau bete dela baieztatu ondoren, fidantza itzuliko da, lokala erabili eta astebete naturaleko epean gehienez ere.

En caso de que se autorizase el derecho de uso y no se hubiera disfrutado del mismo, se devolverá solo y exclusivamente la fianza, en ningún caso la tasa, una vez que se haya acreditado dicha circunstancia.

Una vez disfrutado el derecho de uso y comprobado oportunamente el cumplimiento de la presente ordenanza, se dispondrá la devolución de la fianza en el plazo máximo de una semana natural a la fecha de utilización del local.

## **\* HERRI BIDEA OKUPATZEAGATIKO TASETAN, SAN JUAN JAIETAN SORTZEN DEN ETA ARAUTU GABE DAGOEN TABERNA ETA KAFETEGIETAKO TERRAZEN HANDITZEA ADIERAZTEA KOMENI DA**

Udal Kirol Instalazioek honakoa proposatu dute: tarifa berria sartzea, xake-eskola izeneko zerbitzu berriari dagokionez, honako zehaztasunekin:

### **6. ARTIKULUA – Tarifen sortzapena**

Abonatuak dagozkien kuotak seihileko naturaletan sortuko dira, abonatua izateaz baliatzen den seihileko bakoitzeko egunen kopurua zein den kontuan hartu gabe; dena dela, zenbatekoa urteko kuotaren %50 izango da.

Leioako UKletan, denbora tarte batez ematen diren jardueren kuotak hileroko ordainduko dira.

Leioako Udalak erabakiko du beharrezkoa den ordainketak banku-helbideratzearen bidez egitea; bai bazkide-kuotari eta baita edozein motatako ikastaro, jarduera, eta, oro har, udalaren kirol-instalazioak erabili edo erresebatzeari dagozkienak.

UKletan edozein jarduera edo ikastaro baja emateko, Sakoneta Kiroldagiko bulegoetan idatziz aurkeztu beharko da edo postaz, e-mail edo faxez bidali, baja gauzatzen den aurreko hilabetearen 25a baino lehen.

Seihileko bakoitzerako Udalak ezarritako epean kuota ordaindu ezik, Udalak galarazi egingo die instalazioetan sartzea abonatu gisa eta ofizioz berehala emango die baxa.

Izena eman den ikastaro edo jarduerari dagokion kuota ordaindu ez duenari, jarduera horretan baja emango zaio berehala.

### **Artículo 6.—Devengo de las tarifas**

Las cuotas correspondientes a los abonos se devengarán por semestres naturales, cualesquiera que fuera el número de días que cada semestre se hubiera gozado de la condición de abonado; y su importe será, en todo caso, el 50% de la cuota anual.

Las cuotas de las actividades impartidas en las IDM Leioa con continuidad en el tiempo, se devengarán mensualmente.

El Ayuntamiento de Leioa determinará la obligatoriedad de domiciliación bancaria en las cuotas a satisfacer, tanto en lo concerniente al abono de la cuota de socio, como a la de cualquier tipo de curso, actividad, reserva o utilización en general de las Instalaciones Deportivas Municipales.

La baja de cualquier actividad o curso a las IDM deberá ser presentado por escrito en las oficinas del Polideportivo Sakoneta o enviado por correo postal, e-mail o fax, antes del día 25 del mes anterior al que surtirá efecto la baja.

El impago de la cuota correspondiente a cada semestre en el plazo fijado por el Ayuntamiento impedirá el acceso a las instalaciones en condición de abonado y la baja de oficio inmediata.

El impago de la cuota en cualquier tipo de curso y/o actividad en el que se estuviera inscrito, supondrá la baja automática en dicha actividad.

## Jarduera berria / Nueva actividad

### **Xake eskola**

Umeak (6etik 16 urte artekoak)  
 Ikastaroak: Hastapena eta hobekuntza  
 Astean 1 egun, hiruhilero ordainduz  
 Abonatuak .....  
 Abonatu gabeak .....

### **Escuela Ajedrez**

Niños de 6 a 16 años  
 Cursos: Iniciación y perfeccionamiento.  
 1 día/semana y pago trimestral:  
 30 € Abonados ..... 30 €  
 45 € No abonados ..... 45 €

### **HOBARIAK**

Urteko kuotaren gaineko hobariai famili unitateko kide bakoitzeko sarrerak jarraian adieraziko direnak gainditzen ez dituzten abonatuak aplikatuko zaizkie.

\* Kuotaren %100eko hobaria: 2008an 4.520,51 € sarrerak edo gutxiago.

\* Kuotaren %75eko hobaria: 2008an 4.520,52 € - 6.784,32 € arteko sarrerak.

### **BONIFICACIONES**

Las bonificaciones sobre la cuota anual se aplicarán a aquellos abonados cuyos ingresos anuales por miembro de la unidad familiar no superen las siguientes cantidades

\* Bonificación del 100% de la cuota: ingresos iguales o menores que 4.520,51 € en 2008.

\* Bonificación del 75% de la cuota: ingresos entre (4.520,52 € - 6.784,32 €) en 2008.

Desde la Jefatura de la Policía Local se proponen las siguientes modificaciones en lo que respecta a la Ordenanza Fiscal de la tasa de recogida de animales y servicio canino.

### **Animaliak jaso eta txakur-zerbitzua emateagatiko tasa / Tasa por recogida de animales y servicio canino**

#### **1.— Animaliak onartzea.**

d). Jabeak edo berak eskuordetutako pertsonak animalia borondatez **ematea** txakur zerbitzuari. (Emateko momentuan animalia mikrotxipik ez badarama, mikrotxipa jartzeari dagokion tasa erantsiko zaio)

Txakurra ematea .....  
 Katua ematea .....

#### **1.— Admisión animales.**

d). **Entrega** voluntaria de animal por su propietario o persona delegada por él al servicio canino. (Si el animal no llevara microchip en el momento de la entrega, se añadirá la tasa correspondiente a la colocación del microchip)

Entrega de perro ..... **40,00**  
 Entrega de gato ..... **40,00**

#### **3.— Mikrotxipa ipintzea.**

Ipini den mikrotxip bakoitzeko ..... **40,00**

#### **3.— Colocación de microchip.**

Por cada microchip colocado ..... **40,00**

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, batzordeburuak, adierazi du gehiegizkoa iruditzen zaiola mikrotxipa ipintzearen tarifa 40 eurokoa izatea, Udaltzaingoak proposatu bezala, orain arte 12 euroko tarifa ordaindu baita. Hortaz, 20 eurorainoko igoera

proposatu du. Batzordeko gainerako kideei egokia iruditu zaie 20 euro ordaintzea ipini den mikrotxip bakoitzeko.

Gaia bozkatu da eta honakoa izan da emaitza: EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo batzordeburuaren, EAJ-PNVko M<sup>a</sup> Carmen Urbieta González andrearen, EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andrearen, PSE-EEko Alfonso López Arevalillo jaunaren, PSE-EEko Luis María Pérez Pérez jaunaren eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunaren aldeko botoak eta PPko Fernando Pinto Palacios jaunaren abstentzioa. Horrenbestez, **Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Zerga Ordenantza, kirol-zerbitzuak emateagatiko tasa eta kultura-zerbitzuak emateagatiko tasak, eta animaliak biltzeko zerbitzua eta txakurren zerbitzua emateagatiko tasa aldatzeko proposamenak onestea, mirkotxipak ipintzeagatik 20 euroko tarifa jartzeko aldaketa ezarri, aurreko irizpenean adierazi bezala.

2. Hartutako behin-behineko erabakia jendaurrean agertuko da 30 eguneko epean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute, bai eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onetsi dela ulertuko da.

3. Gai hau udalaren osoko bilkurari aurkeztuko zaio, horri buruzko iritzia eman dezan, egingo duen hurrengo batzarrean.

#### **EZTABAIDA:**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Gobernu Taldeak 2010 urterako proposatu du udal tasa eta zergak izoztea, Zerga berrien kasuan salbu.

Gobernu Taldearen jarrera positiboki baloratzen dugu, ez duelako tradiziozko irizpidea aplikatzen, hau da, Euskadin aurreko KPIa aintzat hartzea. 2008an %1,4ko hazkundea izan zuen dirudienez.

Hala ere, ziurrenik 2010 urterako ez denez egoera ekonomikoa hobetuko, pentsatzen dugu izozte horretatik aparte, neurriak planteatu behar direla. Horrela, gure ustez, zenbait zergetan beherapen jakinak planteatu beharko litzateke, eta azken finean, ahalegin gehiago egin zerga presioa jaisteko.

Hortaz, beste neurririk planteatu ez denez, gure taldea abstenituko da, eta egoera ekonomikoa hobetu dadin saiatzearen ildotik, iragartzen dut mozio bat planteatu dugula eta espero dut aurrerago eztabaidatuko dela.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** esandakoaren laburpena:

Gure jarrera oso bestelakoa da; izan ere, gure iritziz, herriaren sektore batzuek dituzten zailtasun ekonomikoak gainditzeko, baliabide gehiago eduki behar dira. Baliabide horiek herritarrengatik lortzen ditugu, eta horiek pilatuz, aberastasuna birbanatu daiteke eta gizarte politika bidezkoago bat gauzatu.

Politika hori aurrera eramatea oso zaila denez, guk deritzogu nahikoa dela zergak zeuden bezala mantentzea, gizartearentzat bidezkoena ez bada ere. Jakina, askoz bidezkoagoa da zergak era linealean jaistea.

Zalantzarik gabe, zergak izozteak Udalari galarazten dio herritarrei ondo datozkien lan batzuk egitea eta batik bat sektore ahulenei, eta are okerragoa litzateke zergak era linealean jaitea.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Gaurko egunean gai hori jorratzeak abantaila bat du, gure unibertso konparatuaren panorama ezagutzeko aukera eman digulako, beste Udaletan Zerga Ordenantzei dagozkien proposamenak ezagutu ahal izan ditugu eta . Horrela, ikusi dugu PPren joera orokorra dela proposatzea zerga-tasa nolabait murriztea eta Udal batzuetan, gehikuntzaren bat ere badela. Ez dut Alderdi Sozialista nabarmendu nahi, berri horiek prentsaren bidez ezagutu ditut eta horrek askotan interesa Udal handitan jartzen du. Horrela, jakin izan dugu Donostia eta Gasteizko udalek zerga-tasa batzuk igotzea proposatu dutela, baina ziurrenik beste ideologia batzuetako Udalek zergak eta tasak igotzea proposatzen dute.

Zergak eta tasak zeuden moduan mantentzea erdibideko proposamena da eta adostasun gehien sortzen duena. Udaletan, gehien agertzen dena da, nahiz eta badakigun arazoak sortuko dituztela aste batzuk barru kontuak aurkezterakoan, sarrera gutxiagorekin koadratu beharko direlako.

Garrantzitsua da adieraztea Udalkutxak Bilboko Udalaren kasuan baino funtsa txikiagoak emango dituela, aurreko urtean baino berrogei milioi gutxiago, eta tasek sarrera txikiagoa izango dira, bederatzi milioi inguru gutxiago hain zuzen.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Nabarmendu nahi dut gure jarrerak herritarren gaitasun ekonomikoa handituko duela, krisiarentzako irtenbide bat izan daiteke, eta, beraz, iruditzen zaigu egokia dela zerga-tasa murriztea.

Bestalde, argitu nahi dugu gustatuko litzaikeela zaborren tasak tratamendu berezia izatea, eta, hortaz, mantentzen dugu positiboa dela hondakinen tratamenduaren benetako kostua zaborren tasan pixkanaka sartzea, nahiz eta gaizki ez legokeen 2010 urterako Leioan tasa horretan ordaintzen dena nolabait jaitea. Izan ere, kudeaketa txarraren eta Zabalgarbiko inbertsio espekulatiboaren ondorioz, galerak sortu dira, eta komenigarria litzateke Zabalgarbi abertitzea.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Tasak izozteak agerian uzten du aurten berriz ere zerbitzu asko defizitarioak direla, apenas ez baitago bere burua finantzatzen duen zerbitzu publikorik, eta gehikuntza arin batek zerbitzuen finantzaketa hobetu lezake.

Zaborren tasaren kasuan, eta buruz ari naiz, zenbatekoak ez du hartzen bilketa eta tratamendu zerbitzuaren kostua, ezta gutxiago ere, eta are gehiago, nik uste ez duela bilketa zerbitzua ere estaltzen, zer esanik ez tratamenduarena.

PPk planteatzen duen beherapenak ez dakit Zabalgarbiri kargu hartuko liokeen – hori agian Batzar Nagusietan mahairatu litekeen eztabaida bat da eta baliteke Arturo Aldecoak bere parte-hartzea biribiltzea–. Hala eta guztiz ere, kontua da beherapen horrekin egoera okerragoan egongo ginatekeela zaborren bilketaren kostua estaltzeko, tratatzeko eramaten ditugun lekua edozein dela ere. Gainera, jarduteko era horrekin, atzera egingo genuke duela urte batzuk, gaizki ez banabil, PPko Arturo Aldecoak berak proposatutako bidean. Azken finean, ibilbide luzea dugu zerbitzu honek bere kostua estaltzen duen tasa bat izan dezan, eta zalantzan jartzen dut uneren batean %10eko, %12ko, eta abarreko igoerak ontzat ematea.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** esandakoaren laburpena:

Ez naiz ni izango Zabalgarbiren kudeaketa defendatzen duena, eta PPK planteatzen duen ildoko proposamenen alde egin nezake, aldi berean eskatuko balu herritarrek desobedientzia pixka bat izan eta errausketarako erabiltzen den tasaren ehunekoa ordain ez dezaten, esaterako.

Ulertzen ez dudana da oraindik kontua tasa jaisteko proposamena izatea, PPri ez zaiolako gustatzen Zabalgarbiko kudeaketa. Izan ere, ikus genezaken zein beste zerga murriztu daitezkeen, ez gaudelako ados Irakeko gerran horrenbeste diru publiko xahutu izanarekin.

**PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Nik uste PPren proposamenarekin denak ados egon gintezkeela, mezu erraz bat helaraztea baita: bere garaian eztabaida egon zen erraustea jarri ala ez, errauskailua non jartzeari buruz ere hitz egin zen, baina beti aurre suposizio batetik abiatu ziren, hau da, behin martxan jarrita, instalazioa enpresa pribatu batek eraman behar zuela, eta Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak parte hartzen duten arren, gehiengorik ez dute.

Gauza da orain galerak daudela eta herritarrei ordainarazi egin nahi dizkietela, eta enpresaren arduradunei esan nahi diegu ez garela tentelak eta badakigula hurrengo ekitaldietan galera horiek ezkutuan sartzen saiatuko direla.

Nahiz eta kontua era jakin batean apaindu nahi izan jendea lasaitu dadin, enpresak galdutako dirua berreskuratuko du, eta, horregatik, Zabalgarbi eztabaidatu zenean puntu garrantzitsuetako bat zen publikoa izan zedila. Horrela, alderdiak puntu batzuetan ados ez izan arren, egiten dena zehazki jakingo genuke, kontu publikoak agerikoak baitira. Aitzitik, kasu honetan, eskandalu oso larria egon behar izan zen Zabalgarbiren kudeaketa ezagutzeko, eta ez dakigu ezer ez Garbikerri igortzen zaizkion fakturez, zenbat dagoen tratamendurako eta zenbat azpijokoa gaizki irten izana ordaintzeko.

Azken batez, guk abisua eman nahi genuen, eta kasu egiten ez bazaigu ere, Udalari eta alkateari eskatzen diogu egoki deritzonari kargu hartzea, esateko Leioako herritarrok eta udaleko gainerako lekuetakoek ordaindu behar ditugun kostuak benetako prezioak izan behar direla eta ez diezaguten beren kudeaketa txarrak eragindako galeren faktura sartu.

Eztabaida ostean, bozketa izan da eta emaitza hauek egon dira:

## **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Osoko Bilkuraren **gehiengoak**, aldeko hamazortzi botorekin, **adostu du** 2010eko urtarrilaren 1ean indarrean sartu behar diren Zerga Ordenantzak aldatzea, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren ebazpenean adierazitako baldintzen arabera. Bozketan, baiezko botoa eman dute EAJ-PNVk (hamar zinegotzi), PSE-EEK (sei zinegotzi) eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziek, eta hiru abstentzio, PPren zinegotziei dagozkienak.

**7.- KONPROMETITU GABEKO GERAKIN LIKIDOAREN PENTZURA KREDITUAK ALDARAZTEKO BIGARREN ESPEDIENTEA:** Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2009ko urriaren 27ko 147. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

2009ko ekitaldiko aurrekontuen bilakaera kontuan hartuta, gai horretako legezko aurreikuspenekin bat etorriz, beharrezkoa da kredituak aldarazteko espedientea tramitatzea,

udal zerbitzuen beharrizanak aurrekontuan hasieran aurreikusitako gastu-aurreikuspenetara egokitzeko.

Ildo horretan, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak eta berau garatzen duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuak hainbat espediente ezartzen dute Aurrekontua garatzen deneko ekitaldiko diru-sarrerara eta gastuetara moldatzeko. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko araudi espezifikoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eta gainerako foru dekretuek ere kredituak aldarazteko espedienteak aurreikusten dituzte.

### **2009ko DIRU-ZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOAREN PENTZURA KREDITUAK ALDARAZTEKO BIGARREN ESPEDIENTEA**

KREDITU- ALDARAZPEN MOTA	KREDITUAREN JATORRIZKO PARTIDA (Diru-sarreraren aurrekontua)	Kredituak	KREDITUAK JASOKO DITUZTEN PARTIDAK (gastuen aurrekontua)	Kredituak
DIRU- ZAINTZAREN GERAKIN LIKIDOAREN PENTZURAKO KREDITU- GEHIGARRIA	870/01 D I R U - Z A I N T Z A K O GERAKINA	305.120,00 €	00400/22220/227.99.00 Hiri inguruneko zaintza-zerbitzua	65.000,00 €
			00500/42000/211.00.00 Ikastetxeak. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.	30.000,00 €
			00500/42000/481.30.01 Tokiko Agenda 21 (apart. jard.)	58.520,00 €
			00600/31300/227.01.00 Gizarte Laguntza. Garbiketa	12.000,00 €
			01100/52100/226.03.00 Auzokideei jakinarazpenak	70.000,00 €
			01100/12170/227.90.01 Informatika-zerbitzuak. Sistemen Plan Nagusia	69.600,00 €
			<b>PARTIDA, GUZTIRA</b>	<b>305.120 €</b>

Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu-gehigarriak onesteko eskumena Udalaren osoko bilkurari dagokio, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategineko 177.2 artikuluan eta apirilaren 20ko 500/1990 EDren 37. eta 38. artikuluetan xedatutakoaren arabera, aurrekontuek dituzten izapide eta betekizunei eutsita. Kredituak aldarazteko espediente horiek onesteko quorum berezirik ezarri ez denez, nahikoa izango da aldeko botoen gehiengo sinplea (apirilaren 2ko 7/1985 Legea).

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 15eko 10/2003 Foru Arauaren 34.2 artikulua arabera, aldaketa diruzaintzako gerakin likidoaren kontura finantzatu da.

Aplikagarriak izango dira Foru Arau horren 15., 17. eta 18. artikuluek aipatzen dituzten Aurrekontu Nagusien informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko arauak.

Horren ondorioz, eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan xedatutakoa zein Leioako Udalaren Aurrekontu Orokorrari buruzko Betearazpen Oinarrietan eta txostenean aipatzen den Foru Araudian ezarritakoa aintzat hartuta, kontu-hartzaileak uste du ez dagoela eragozpenik 2009ko aurrekontuko kredituak aldarazteko 12. zenbakidun espedientea onesteko.

Aurretik aipatu den araudiaren arabera, adierazi behar da, izapidetzeari dagokionez, espediente guztiek Kontu-Hartzailetza Sailaren aurreko txostena behar dutela.

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Kredituak aldarazteko bigarren espedientearen (irizpen honetan adierazitakoa) aldeko irizpena ematea, 2008ko konprometitu gabeko gerakinaren pentzura.
2. Berau onesteari buruzko puntua Udalaren Osoko Bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaienez zerrendan sartzea.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da 15 eguneko epean eta, horretarako, horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta berau garatzen duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** kredituak aldarazteko bigarren espedientea onetsiko dela, konprometitu gabeko gerakin likidoaren pentzura, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazi den bezala.

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**8.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTAK, 2009-09-17tik 2009-10-21era.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientearen agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Osoko Bilkura jakitun geratu da espedienteen dauden Alkatetza-Udalburutzaren dekretuen eta Tokiko Gobernu Batzarraren akten ginean.

## **9.- PRESAZKO MOZIOAK:**

**XABIER OLABARRIETA ARNAIZ JAUNA LEIOAKO UDALEKO PARTIDO POPULAR UDAL TALDEAREN BOZERAMAILEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA:** Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna Leioako Udaleko PP udal taldearen bozeramaileak mozio hau aurkeztu du:

Krisi ekonomiko honen kaltetu nagusiak langabezian daudenak eta baliabide ekonomiko gutxien dituzten taldeak dira. Jarduera ekonomikoaren beherakadak eragindako beste ondorio larrietako bat da igo egin direla eskatutako eta Eusko Jaurlaritzak baimendutako enplegu-erregularizatorako espedienteak. Azkenik, txikizkako merkataritzaren sektoreak egungo egoeraren eraginak pairatzeaz gain, sarritan bide publikoetan egiten diren obren eraginen kalteak jasaten ditu.

INEMek emandako datu ofizialen arabera, Bizkaian, abuztuan, 65.000 langabetu zeuden eta ekitaldi honetako 2. hiruhilekoan langabezia tasa %12aren inguruan zebilen. Horri gehitu behar zaio, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren arabera, ekitaldiko lehen zortzi hilabeteetan zehar, enplegu-erregularizatorako 1.783 espediente baimendu zirela eta horiek 50.000 pertsoneri eragiten diete.

Egungoaren moduko egoera ekonomiko latzak daudenean, botere publikoek eraginak murrizteko mekanismoak martxan jartzeko betebeharra dute, kalteak gehien pairatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoen egoera ahal den heinean arintzeko.

Kontzertu Ekonomikoak Lurralde Historikoetako eskudun Erakundeei beren zerga erregimena mantendu, ezarri eta erregulatzeko gaitasuna aitortzen die. Udal zergak erregulatzen dituen foru araudiak atal bat du egoera jakin batzuetarako hobari fiskalen kontzeptuari buruz, eta udal bakoitzari dagokio horiek aplikatzeko eskubidea.

Ekimen hau aurkezten dugu udal zerga-ordainketari eragiten dion foru araudia aldatzeko, egun xedatzen diren abantaila fiskalak hedatze aldera, hautazko gaitasunari jarraiki, udal bakoitzak aplikatu ahal izan ditzan. Horrela, tokiko erakundeen autonomia fiskalaren erregimena handitu nahi dugu, ahal duten heinean, egungo krisi ekonomikoaren ondorioak gehien jasaten dituztenei beren egoera arintzen lagun diezaieten.

Hori guztia dela eta, Partido Popularraren udal taldeak Osoko Bilkuran akordio hauek aurkezten ditu:

**LEHENENGOA.** Bizkaiko Batzar Nagusiei eskatzea aldatu ditzaten Ondasun Higiezinaren gaineko 9/1989 Foru Araua, Trakzio Mekanikozko Zergari buruzko 7/1989 Foru Araua eta Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergari buruzko 10/1989 Foru Araua eta udal kuota ordaintzen duten eta langabezian, pentsiopean edo ezintasun egoeran dauden subjektu pasiboek egun dituzten hobariak handitu ditzaten —errenta maila aintzat hartuta—.

**BIGARRENA.** Bizkaiko Batzar Nagusiei eskatzea Ondasun Higiezinaren gaineko 9/1989 Foru Araua alda dezaten eta udal kuota ordaintzen duten eta bide publikoetako obrek eragina jasaten duten lokalen titularrek egun dituzten hobariak handitu ditzaten, obrak irauten duen epearen arabera.

**HIRUGARRENA.** Bizkaiko Batzar Nagusiei eskatzea Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergari buruzko 10/1989 Foru Araua alda dezaten eta udal kuota ordaintzen duten eta lokaletan obrak egiten dituzten titularrek egun dituzten hobariak handitu ditzaten.

**LAUGARRENA.** Bizkaiko Batzar Nagusiei eskatzea aldatu ditzaten Jarduera Ekonomikoaren Zergaren gaineko 6/1989 Foru Araua eta Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergari buruzko 10/1989 Foru Araua eta Enplegu-erregulazioko Espedientea duten enpresek egun dituzten hobariak handitu ditzan.

**EZTABAIDA:**

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Ohiko moduan arituko gara, hau da, lehenbizi PPko Xabier Olabarrietari hitza emango diot, mozioa premiazko izatearen arrazoiak azal ditzan. Ondoren, taldeek horren gainean duen iritzia agertzeko aukera izango dute, eta, gero, premiazkotasun hori bozkatuko da.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Mozio hori zerga ordenantzekin eta udal zergekin zuzenean lotuta dago eta guk uste argi dagoela mozioa premiazkoa dela, orain baita 2010 urtean indarrean izango diren tasa eta zergak onartzeko garaia. Hori dela eta, nahi dugu Bizkaiko Batzak Nagusiek neurriak ezartzea zerga jakin batzuk aldatzeko.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Iruditzen zait ez dagoela PPK proposatutako gaia gaur jorratzeko premia larririk, gaur gure zerga ordenantzez aritu izan garelako, eta, Batzar Nagusiei aipatutako arauak aldatu ditzaten eskatzeko erabakia hartzen badugu, nik uste hemendik bi edo hiru astera ere egin genezakeela.

Bestalde, hori ordenantzen eztabaidaren barruan landu izan balitz, ondorio ekonomikoak kalkulatzeko denbora izango genukeen. Alabaina, denbora larritasunarengatik, ezin izan da aztertu.

Edonola ere, ez diot proposamenari ezezko botoa eman nahi. Haitzik, nik uste koherenteena dela PPK Ogasun Batzordean aurkeztea, eta, edukiaren alde egiten bada, gaia jorratzeko ezohiko bilkura egin beharko litzateke.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Gure taldeak ez du inolako oztoporik alkate jaunaren proposamena onartzeko, gaia premiaz jorratu behar dela uste dugun arren.

Azken batez, Ogasun Batzordean landu dadin onartzen dugu. Hala ere, jasota geratzea nahi dut batzuetan mozioak garaiz aurkeztu direla eta ez Osoko Bilkuran jorratzea onartu.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Ogasun Batzordearen ebazpenean proposatzen bada gaiaren gaineko akordioa hartu behar dela Osoko Bilkuran, kontua zuzenean bilkuran aurkeztuko dut; baina Batzordean akordioari eusteko moduko gehiengorik ez badago, eztabaida Batzordean bertan eman dela deritzot, Popularrek gaia Osoko Bilkuran aurkezteko eskubide osoa duten arren.

Edonola ere, nik uste dut Ogasun Batzordean aztertu behar direla proposamen hori onartzeak izan litzakeen ondorio ekonomikoak.

Alkate jaunak proposatu du gai hori Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian lantzea, eta PPko Udal Taldearen bozeramaileak proposamena onartu du.

## **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Osoko Bilkurak **aho batez adostu du** aurkeztutako mozioa Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezian lantzea.

### **10.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

#### **LEHENENGO ESKAERA:**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Duela hilabete baino zerbait gehiago Sustapen Ekonomikoko Batzordean jorratutako gai batekin lotuta dago, Ondizeko dorretxea birgaitzeko proiektuarekin hain zuzen. Lehen fasea 2009 urtean zehar garatu da, eta hainbat pertsonak parte hartu dute, Enplegu tailerreko ikasle nahiz monitoreek alegia, birgaitze hori INEMek finantzatzen duen Enplegu Tailerraren programaren barnean baitago.

Irailaren 29ko Sustapen Ekonomikoko Batzordean jakinarazi zitzaigun INEMek Enplegu Tailerraren proiektua bertan behera utzi duela, eta horrek esan nahi du 2010ean proiektua zintzilik geratzen zela, horrek langileengan eta obrarengan dituen ageriko ondorioekin.

Egoera hori udalerrarentzako gertaera larria da, ikasleen prestakuntzari zein Zerbitzuko monitorea eta langileen enpleguari dagokienez.

Batzordetik igaro den denbora kontuan izanik, Gobernu Taldeari eskatzen diogu INEMek zergatik atzera bota duen azal dezan, eta eskatzen dugu proiektua jarraitzea bermatu dadin.

Ildo horretatik, aurrekontuen garapenean zein fasetan gauden ikusita, proiektuari lehenetsuna eman behar zaio, eta INEMeko diru-laguntzarik ezin bada lortu, Aldundian edo Eusko Jaurlaritzan laguntza eskatu beharko da, amaitu ahal izateko. Halaber, argi uzten dugu edozein administraziotan egiten diren gestioen alde gaudela.

#### **BIGARREN ESKAERA:**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Duela hilabete batzuk, Osoko Bilkura batean, Udaleko web orriaren gaia mahairatu zen eta udal taldeen helbide elektronikoen eta telefonoen kontuari heldu zitzaion. Horren inguruan zeuden arazoak konpontzeko eskaera egin zen, eta jada konpondu direnez, zorianak eman nahi ditugu.

Gure ustez, datu horiek sarean zuzen jasota egon behar dira, zuzenketak egiten ibili behar izan gabe. Gainera, datu horiek Leioako udal aldizkarian ere agertzea nahiko genuke, eta, horietaz gain, telefono zenbakiak eta hirugarren orrian agertzen diren bestelako informazioak baita ere.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Bigarren partetik hasita, jasota geratu da, eta horren gainean hausnartuko dugu, gaizki dagoena konpondu behar da eta.

Talde politikoen datuak udal aldizkarian txertatzearena aintzat hartu beharreko gauza da, baina jasota geratzea nahi dugu talde guztiak berdin gaudela, inongo talderen daturik ez baitago.

Ondizko dorretxearen proiektuari dagokionez, nik uste Sustapen Ekonomikoko Batzordean azalpen luzea eman zela, eta jakinarazten dut goragoko errekurtoa jarri dela ukapen erabakiaren kontra. Hala ere, kontua ebazteko sei hilabeteko epea dago, eta, beraz, egoera benetan txarra da, Enplegu Tailerreko pertsonentzat nahiz Udalarentzat.

Nik pertsonalki INEMeko probintzia zuzendariari egoera azaldu eta adierazi nion duela urtebete INEMek balizko proiektutzat hartzen zuena orain ez duela balio eta are gehiago, azken 15 urteotan interesgarri iruditu zaiena, orain baztertzen dela. Puntu honetan, azpimarratzekoa da orain aurkezten den proiektua aurreko urteetan eraikuntzak birgaitzeko aurkeztu ditugun beste proiektu batzuen jarraipena dela (Elexaldeko errota, Kortezenabarri, etab.)

Bestetik, egia da proiektu horiek zuzenduta zeudela arotzeria, hargintza, eta abarren moduko lanbideetarako prestakuntza ematera. Beste sektore batzuk laguntzea beharrezkoa bada ere (altzariarena adibidez, bat esatearren), aurrekoei ere laguntza eman behar zaie, langabezia laguntzarako kausa izango baitira bestela.

Beste alde batetik, aintzat hartu behar da Kortezenabarri birgaitu ostean, Aranzadi Zientzia Elkartea Leioan kokatzea ahalbidetu duela eta Errota zaharberritzean, Kastoreen Elkarteko egoitza bertan izatea posible egin duela.

Aitortzen dugu diru-laguntza horiek emateko irizpideak alda daitezkeela, baina kasu honetan ez da hala izan, eta, are gehiago, balorazio zoragarriak jasoak genituen aurkeztutako proiektuetan, eta orain ez gaituzten kontuan hartzen.

Aintzat izanda aurkeztutako errekurtoaren erabakia atzeratzen dela, Gobernu Taldeak bi irtenbide proposatzen ditu: Dorretxea ez amaitzea eta 70. hamarkadan uzten zirenen moduko hondarrak uztea. Horrek herritarrak etsituko lituzke, eta, beraz, ezin dugu Dorretxea bukatugabe utzi. Gustatuko litzaiguke orain arte egin izan den moduan jarraitzea, bizilagunen prestakuntzari laguntzen baitio eta orain arte lanean izan direnak baitira gaiaren inguruan gehien dakitenak. Dena dela, finantzaketaren arazoa ere badugu. Zentzu horretan, ez dakigu Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak zer nolako programak onar ditzakeen, eta, horretaz aparte, proiektuan lan egiten aritu direnen kontua ere hortxe dago.

#### **HIRUGARREN ESKAERA:**

**PSE-EEko Pilar Grados García andreak** esandakoaren laburpena:

Nik PPko bozeramaileak esandakoa azpimarratu nahiko nuke Ondizko dorretxeari dagokionez, eta egoera islatzen duen dokumenturik baldin badago, kopia bat izan nahiko genuke, Osoko Bilkurara itxaron behar ez izateko egoeraz informazioa lortzeko. Izan ere, PPko bozeramaileak esan bezala, Osoko Bilkurara itxaron behar izan dugu jakiteko errekurtoa aurkeztu dela, etab. Guk uste gaia premiazkoa dela, eta eskatzen dugu hurrengoetan erantzun azkarragoa edukitzea.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Nik aipatutakoren gainean, bada Enplegua Publikoko Zerbitzuaren dokumentu bat diru-laguntza ukatzen duena eta probintzia zuzendariarekin izandako elkarriketa jasotzen duena. Ez da Osoko Bilkurara itxaron behar jakiteko, deitu eta gaia ezagutzea baino ez da kontua.

Bestalde, gaiak ezagutzeko Osoko Bilkuretara itxaroteari dagokionez baita ere, hori ekiditeko, Batzorde jakin bateko zinegotziarekin harremanetan jarri eta bilera deitu dezaten eskatzen zaio. Horrela, dagokion gaiaren berri izan daiteke. Hori ohikoa da Udal honetan zinegotzien arteko harremanetan: nahikoa da telefonoa altxatu eta zinegotzi bati deitu eta galdetzearekin, eta formaltasun gehiago nahi izanez gero, Batzorde bat deitzeko eskaera egiten da.

**PPko Arturo Aldecoa Ruiz** jaunak esandakoaren laburpena:

Dorreez ari garela, Osoko Bilkuren areto honetan dagoen armariari begira jarri naiz, eta jakinarazi nahiko nizueke Bizkaiko Batzar Nagusiek duela urte batzuk, nahasteak ekiditeko, onartu zutela armari edo bandera berri bat hartzean, kolorez birsortzea eta kopia bikaina lortzen da. Baliabide informatikoak erabiliz egin daiteke hori, irudia eskaneatu eta tamaina handiko armaria lor daiteke ia kosturik gabe.

Eta gaueko zortziak eta hamabost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,